

DIRU-ITURRIAK

Sendero Vivo-ren diru sarreren egitura bezeroen borondatean oinarritzen da ekitaldi arduratsu, pertsonalizatu eta kulturalki aberats batengatik ordaintzeko. Gure merkatuak bikoteak, enpresak, erakunde publikoak eta turismo-eragileak prest daude balio erantsia duen esperientzia baten truke prezio handiagoa ordaintzeko, baldin eta eskaintzen duguna kalitatezkoa, gardena eta benetan jasangarria bada. Hortik abiatuta, gure diru sarrerak modelo misto batean oinarritzen dira: ordainketa bakarreko zerbitzu nagusia, osagarri errepikakorrek, komisio eta kolaborazio bidezko sarrerak.

Zerbitzu nagusiaren kuota: ekitaldi jasangarrien diseinu eta produkzio integrala

Sendero Vivo-ren diru-sarrera nagusia ekitaldi bakoitzaren pakete integralagatik jasotzen den ordainketa da. Pakete horrek barne hartzen ditu kontzeptuaren diseinua, plangintza estrategikoa, hornitzaileen kudeaketa, logistika jasangarria eta ekitaldiaren koordinazio osoa.

Bezeroentzat hau da balio nagusia: lan profesionala, ardura ekologikoa eta kultura lokala modu koherentean integratzea, eta horrek prest jartzen ditu prezio bat ordaintzeko.

Jasangarritasun-inpaktuaren neurketa eta txosten espezializatuak

Enpresa, erakunde eta administrazio publikoentzat zerbitzu honek aparteko balioa du, eta diru sarrera egonkorra eta errepikakorra bihurtu daiteke.

Txosten hauek ez dira soilik datuak: tresna korporatibo estrategikoak dira, ESG memoriak egiteko, gardentasuna bermatzeko edo araudiak betetzeko. Horregatik, prezio finko profesional baten truke saltzen dira, eta bezeroek argi ikusten dute euren inbertsioaren itzulera.

Kultur esperientzia eta elementu tematikoen kontratazioa

Kultur elementuak sartzea musika tradizionala, artisautza, eskualdeko gastronomia, tailerrak eta erritu sinbolikoa bezero askorentzat da, ekitaldiaren “faktore wow”-a. Zerbitzu hau osagarri premium moduan saltzen da:

- Bezeroak nahi dituen esperientziak hautatzen ditu,
- Guk tokiko profesionalekin konektatzen dugu, prezio dinamikoaren bidez.

Segmentu guztiek onartzen dute kultur balioa duen produktuak prezio handiagoa duela, benetakotasuna eta eskusibotasuna eskaintzen dituelako.

Opari jasangarriak eta produktuen salmenta

Ekitaldietan erabiltzen diren elementu espezifiko batzuk artisau-opariak, dekorazio naturalen

bertsio txikiak, souvenir kulturalak zuzenean saldu daitezke.

Hau da marjin altuko diru-sarrera-iturrietako bat, eta produktuen izaera lokalak balio emozionala gehitzen dio erosketari.

Komisioak eta Sarrerak

Zenbait kasutan, hornitzaile edo artistaren kontratazioa Sendero Vivo-k negoziatzen du; horrek aukera ematen du koordinazio lanagatik komisio txiki baina egonkorra jasotzeko. Ez da diru-sarrera nagusia, baina bai fluxu osagarri iraunkorra, batez ere urteko ekitaldi kopurua handitzen denean.

Formakuntza, aholkularitza eta tailer tematikoko sarrerak

Gero eta erakunde gehiago eskatzen dute jasangarritasunari edo ekonomia zirkularrari buruzko prestakuntza.

Hau bihur daiteke gure diru-sarrera errepikakorrik garbientetako bat, urteko hitzaldi, formakuntza eta tailer paketeekin.

Etorkizuneko hazkunderako funtsezko zutabea da, ez duelako logistika handirik behar eta marjin altua duelako.

Diru-sarreraren egitura eta pisu ekonomikoa

Hasierako urteetan banaketa zihur bat izango da:

- 55% – Ekitaldien diseinu eta antolaketa integrala
(negozioen oinarria eta sarrera nagusia)
- 20% – Kultur eta esperientzia osagarriak
(bezeroek balio handia aitortzen dion atal eksklusiboa)
- 10% – Jasangarritasun txostenak eta neurtze profesionala
- 10% – Produktu eta opari jasangarrien salmentak
- 5% – Komisioak eta formakuntza/aholkularitza zerbitzuak

Banaketa hau malgua da, baina erakusten du negozio-eredua ez dela iturri bakar batean oinarritzen, baizik eta sarrera askok eraikitzen dutela egonkortasuna.